



# INGURUMENENKO POLITIKA

TRANSPORT SYSTEMS  
TRAINS  
BUSES  
SIGNALLING  
COMPONENTS  
SERVICES

**Your Way**  
to Future Mobility

*Konpainiak helburu informatiboekin soilik ematen du hurrengo euskarazko itzulpena, Konpainiaren webgunean eskuragarri dagoen jatorrizko dokumentu ofizialean oinarrituta. Euskarazko bertsioaren eta gaztelarazko dokumentuaren artean desadostasunik egonez gero, azken hori gailenduko da.*

**AURKIBIDEA**

1. HELBURUA..... 3

2. IRISMENA..... 3

3. INGURUMEN ARLOKO OINARRIZKO PRINTZIPIOAK..... 3

4. JARRAIPENA ETA KONTROLA ..... 4

5. ONARPEN ETA HEDAPENA..... 4



## **1. HELBURUA**

**CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA** enpresako Zuzendaritzek **CAF Taldearen** (hemendik aurrera, “**CAF**”) baitan funtzionamendu homogenea izatea ahalbidetzen duten politika korporatiboak onartzeko eskumena dute gai jakin batzuen inguruan. Horretarako, beste hainbat neurritz gain, printzipio eta irizpide orokorrak ezartzen dituzte.

**CAFek**, gero eta eskakizun handiagoko ingurunean dagoela jakinda eta 2030eko Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen Munduko Itunaren baitan ezarritakoa betez, berotze globalaren kausak arintzearekin eta klima-aldaketara egokitzeko ekintzak garatzeko asmoa du, ingurumeneko jasangarritasuna lortzen lagunduko luketen neurriak bultzatuta.

**Ingurumeneko Politikaren** helburu nagusia da **CAFen**, maila korporatiboan, ingurumenarekin lotuta nagusi izan beharko luketen printzipio eta irizpide orokorrak ezartzea eta **CAFeko Erantzukizun Sostenibilitateko Politikaren** baitan jasotako gure ingurumen-konpromisoak gure interes-taldeen artean zabaltzea. Horrekin lotuta, ingurumena jasangarritasun kontzeptuaren elementu nagusia da eta, bereziki, mugikortasun jasangarriko irtenbide integralak, eragingarriagoak eta errespetuzkoagoak garatzeari dagokionez.

Hori guztia kontuan hartuta, komunikazio- eta informazio-estrategia gardenaren bidez, ingurumena zaintzearekin, gero eta zorrotzagoak diren araudi mailako eskakizunekin eta gizarte zibileko analistek, ebaluatzaileek eta eragileek egindako kudeaketaren inguruko etengabeko azterketarekin lotuta intereseko

taldeek dituzten aurreikuspenei erantzuna ematen die **CAFek**.

## **2. IRISMENA**

**Ingurumeneko Politika** honek **CAF** osatzen duten sozietate guztiengan du irismena Merkataritza Kodearen 42. artikulua xedatutakoa betez **CAFek** lan egiten duen jurisdikzio guztietan. Era berean, Taldeko enplegatu guztientzat da aplikagarria.

**CAFekok** ez diren partaidetutako sozietateen kasuan, Sozietatea saiaturiko da mugak, printzipioak eta irizpideak **Politika** honen bidez ezarritakoekiko koherenteak izaten, kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez.

## **3. INGURUMEN ARLOKO OINARRIZKO PRINTZIOAK**

Konpromisoak abian jartzeko, produktuen/zerbitzuen bitziza-zikloa aintzat hartuta, **CAFek** oinarrizko jarduera-printzipio hauek hartuko ditu kontuan:

- 1) Lan egiten duen herrialdeetan indarrean dagoen ingurumeneko araudia errespetatzea eta, ahal den neurrian, araudi berriaren aplikazioari aurre hartzea eta ingurumeneko portaerarekin lotutako nazioarteko irizpideak kontuan hartuta bere borondatez bere gain hartutako konpromisoak betetzea, eta bereziki horiek asmo handiak dituztenean.

Horri dagokionez, bereziki interesgarriak dira **CAF Taldeak** hartutako konpromezua:

- Klima-aldaketaren aurkako estrategiak definitzea, CO2 emisioak murrizteko eta energia berriztagarriak bultzatzeko.
- Jarduerak garatzean sortzen diren hondakinak murrizteko eta balorizatzeko konpromezua.

- Biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta berreskuratu, Nazio Batuen Aniztasun Biologikoari buruzko Konferentzian (COP 15) ezarritakoaren arabera.
- 2) Egiten diren jardueren ingurumen-arriskuak eta aukerak etengabe identifikatzea eta ebaluatzea, eta horiek arintzeko eta ezabatzeko diseinatutako mekanismoak etengabe hobetzea eta eguneratzea (kontuan hartzen dira ingurumenean eragina duten arriskuak eta aukerak, hala nola taldean eragina duten arriskuak eta aukerak. Horien artean, ingurumen betetzeko arriskuak eta klima-aldaketa, biodibertsitatea eta ekosistemak, hurrenez hurren).
- 3) CAFen jarduera ugariak duten ingurumeneko inpaktua modu objektiboan ezagutzea eta alderatzea ahalbidetuko duten txostenen sistemak eta adierazleak finkatzea, etengabe hobetzeko ekintzak ezarriz, identifikatuz eta kategorizatuz.
- 4) Etengabeko hobekuntzaren filosofian oinarritutako Kudeaketa Sistema egokiak ezartzea, ingurumeneko inpaktuak gutxitzen laguntzeko.
- 5) Ingurumeneko jardueri eta emaitzei buruzko informazio gardena ematea, interes-taldeen komunikazioa errazteko bide egokiak mantenduta.

#### **4. JARRAIPENA ETA KONTROLA**

**Batzorde Betearazleari** dagokio politika hori betetzen dela zaintzea, zuzendaritza sinatzailearen gidaritzapean. Horretarako, **Ingurumen Politika Garatzeko Eskuliburuan** definitutako kontrolerako beharrezko barne-mekanismoak ezarriko dira.

#### **5. ONARPEN ETA HEDAPENA**

**Ingurumen Politika** hau 2020ko azaroaren 26an onartu du **Giza Baliabideetako Zuzendaritza**

**Korporatiboak**, eta egun horretatik aurrera sartu da indarrean.

**Ingurumen Politikaren** interesdunek eta hartzailleek horren edukia eskuragarri izatea errazteko, Sozietatearen webgunean.

Eguneratze Data: 2023/07/07

Sinadura: Gorka Zabalegi Aginaga

Giza Baliabideetako Zuzendaria Korporatiboa

<b>HISTORIKOA</b>	<b>DATA</b>
Hasierako edizioa.	2020-11
3 eta 4 Puntuen eguneraketa.	2023-07

